

KUDEAKETA, DIRU-BILKETA ETA IKUSKAPENARI BURUZKO ZERGA ORDENANTZA

I.- PRINTZIPIO OROKORRAK

1. artikulua.- Ordenantzaren xedea:

Ordenantza honen xedea Bermeoko Udalari dagozkion zergen eta zuzenbide publikoko gainerako sarreraren kudeaketa, bilketa, zehapen eta ikuskapen prozedurak arautzea da.

2. artikulua.- Lege araubidea:

Zergen eta zuzenbide publikoko gainerako sarreraren kudeaketa, bilketa, zehapena eta ikuskapena Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren (Toki Ogasunen Foru Arauan aurreikusitako berezitasunekin), zerga bakoitzari buruzko Ordenantza Fiskalen eta Udal Ordenantza honen bidez erregulatuko dira.

Ordenantza honetan aurreikusita ez dagoen guztiari dagokionez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorra garatzen duten xedapen osagarriak beteko dira.

3. artikulua.- Aplikazio eremua:

1.- Udal honek Bermeoko udalerrri osoan erabiliko ditu Ordenantza honetan araututako gaiei buruz dituen eskumenak.

2.- Udalerritik kanpo egin beharreko ikuskaritzak edo nahitaezko diru bilketak, udalerriri dagozkion Zuzenbide Publikoko sarrerekin loturik badaude, Udal honek burutu ahal izango ditu Bizkaiko Lurralde Historikoaren esparruan. Gainerako kasuetan, zeregin horiek ezarrita dauden edo ezar litezkeen lankidetzaren formularen arabera egingo dira.

4. artikulua.- Idazkera eredua:

1.- Agindu horiek ezartzeaz arduratuko diren organoak Alkatetza eta Diruzaintza izango dira.

2.- Alkateak, honako eginkizun hauek izango ditu zuzenbide publikoko sarreraren kudeaketan:

- a) Entitate laguntzaile gisa baimena ematea.
- b) Informazioa eskatzea, finka edo lokaletan sartzeko baimena ematea, zuzenbide publikoko neurriak hartzea.
- c) Espezieetan ordaintzeari baimena ematea.

- d) Likidazioak onestea eta deusezta egitea.
- e) Birjartzeko errekursoak ebatzea.
- f) Bidegabeko kobrantzen itzultzea ebatzea.
- g) Onura fiskalen aitorpenerako eskariak ebatzea.
- h) Bermearen onespina ebatzea.
- i) Bermeen gauzatzea ebatzea.
- j) Onura fiskalak aitortzea.
- k) Gerorapen edo zatikapenak ebatzea.
- l) Legez, beste organo batzuei ez dagozkien gainerako eginkizunak burutzea.

Alkateak, zinegotziak eskuordetu ahal izango ditu bidezkoztat jotzen dituen eginkizunetarako.

3.- Diruzainak, honako eginkizun hauek izango ditu zuzenbide publikoko sarreraren kudeaketetan:

- a) Alderdi batek eskatutako konpentsazioa ebatzea.
- b) Hutseginak eta kreditu kobraezinak aitortzea.
- c) Premiamenduzko probidentzia ematea.
- d) Enbargozko probidentzia ematea.
- e) Enbargatutako ondasunak gordetzeko tokia aukeratzea.
- f) Enbargatutako ondasunen gordetzailea izatea.
- g) Enbargatutako ondasunen besterentzea ebatzea.
- h) Kobrantza efektiboa egitea.
- i) Gerorapen edo zatikapenak ebatzea.
- j) Premiamenduzko probidentzia ematea.
- k) Ofiziozko konpentsazioa erabakitzea.

5. artikulua.- Kudeaketa:

1.- Bermeoko Udalak bere zergekin loturiko onura fiskalak eman ahal izango ditu, bere aurrekontuen kontura, Foru Arauetan ezarritakoari jarraiki.

2.- Ez da egokia izango ordainagiriak edota zerga likidazioak bidaltzea beraien kuota 6,01 eurotik berakoa denean.

6. artikulua.- Errolda:

1.- Zergapeko egitateak jarraitasuna badu, errolda batean sartuko da. Erroldan interesdunen adierazpenak, Udalak dituen datuak eta ikuskaritzak azalduko dira. Altak, bajak edo aldaketak gertatu eta hurrengo 15 egun baliodunen buruan jakinarazi beharko dira.

2.- Erroldak alkatetzaren erabakiz onetsiko dira urtero eta jendaurrean jarriko dira 15 egunez, ukitutako zergadunek haiek aztertu eta bidezkoztat jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten, Foru Arauetan eta zuzenbide publikoko sarrerak arautzeko ordenantza espezifikoetan ezarritakoari kalterik egin gabe.

3.- Erroldarekin batera, Udalak borondatezko ordainketarako epea argitaratuko du. Epe hori behin amaituta zordunak zenbatekoa osorik ordaindu ez badu, aldi exekutiboa hasiko da.

4.- Kobrantza jakinarazpenean hurrengoak adierazi beharko da:

- a) Dirua sartzeko epea
- b) Baimendutako ordainketa moduak
- c) Dirua sartzeko tokiak, egunak eta orduak
- d) Epea behin amaituta zenbatekoa ez bada ordaindu, zorrak premiamenduzko prozeduraren bidez eskatuko direla eta aldi exekutiboan sortutako errekarquak, berandutzako interesak eta sor litezkeen kostuak ere kobratuko direla ohartaraziko zaio zordunari.
- e) Helbideratutako ordainagiriak kobrantzara aurkeztuko diren data.
- f) Banku helbideratzeek aipatutako kobrantza epean ondorioak izateko muga eguna.

7. artikulua.- Kobrantzarako egutegia :

1.- Oro har, Udalak egutegi hau aurreko urtea amaitu baino lehen Alkatearen dekretuz onartuta edukiko du eta argitaratuta agertuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta baita ere Udaleko bandoan.

- Ezohiko kasuetan, Alkateak aurreko puntuan ezarritakoetatik desberdinak diren epeak finkatu ahal izango ditu.

II.- ZORRA AZKENTZEA

ORDAINKETA

8.- artikulua.- Ordainketa egiteko legitimazioa :

Ordainketa zerga behartuak edo hirugarren batzuek egin dezakete, zorra berehala azkenduko delarik. Horrek ez die hirugarrenei Udalaren aurrean inolako eskubiderik emango.

9.- artikulua.- Tokia eta eguna :

1.- Zerga bilketari buruzko araudiaren arabera, zorra eskudirutan ordaindu beharko da, kasu bakoitzaren arabera:

- a) Zerga bilketarako udal bulegoan, eta Berhaz bulegoan ere.
- b) Kreditu entitate laguntzailean.
- c) Kutxako zerbitzua eskaintzen duten erakundeetan
- d) Ordenantza fiskal bakoitzean ezarritako moduan
- e) Udaleko web orrialdearen bidez

2.- Ordainketa egiteko epea hau izango da:

- a) Autolikidazioak : Hamar egun autolikidazioa egiten den egunetik kontatzen hasita.
- b) Administrazioak egindako likidazioak eta honako eskabide hauek ukatzearen ondorioz eska litezkeenak: ordainketa geroratzea edo zatikatzea, alderdi batek eskatuta konpentsazioa ematea, zorra ordaintzeko ondasunak edo eskubideak ematea edo diru bilketako prozedura etetea : Hilabeteko epea aurreikusten da.
- c) Aldizkako jakinarazpen kolektiboak : Ordenantza honen 7. artikuluan ezarritakoa.

10.- artikulua.- Ordainketa modua :

1.- Zergen eta zuzen bide publikoko gainerako sarreren bilketa horrela egingo da:

- a) Borondatezko aldian:Xede horretarako ezarritako epeetan.
- b) Aldi exekutiboan: Premiamendu bidez.

2.- Oro har, aldi exekutiboan ordainketa Diru Bilketa Bulegoan egingo da, nolanahi ere, interesdunak eskatuta, Udalak baimendutako beste edozein modutara egin ahalko da.

3.- Zerga behartuei eta subjektu arau-hausleei berandutzako interesa ordaintzea eskatuko zaie honako kasu hauetan:

- a.- Ordainketa ezarritako epean egiten ez badute.
- b.- Bidegabeko itzulketa bat kobratzen badute.
- c.- Zorren ordainketa geroratzen edo zatikatzen badute.
- d.- Zergei buruzko araudian eta indarreko aurrekontu xedapenetan adierazitako gainerako kasuetan.

4.- Berandutzako interesa, berau sortzen den aldian indarrean dagoen diruaren legezko interesa gehi %25 izango da, besterik zehaztu ezean.

Zergazko ez diren zorrei diruaren legezko interes tasa aplikatuko zaie.

11.- artikulua.- Ordainbideak:

- 1.- Ordainketa eskudirutan egingo da.
- 2.- Eskudiruzko ordainbide hauek onartuko dira:
 - a) Legezko dirua.
 - b) Helbideratzea Banketxe edo Aurrezki Kutxetan
 - c) Banku transferentzia
 - d) Txekea
 - e) Kreditu txartela
 - f) Entitate laguntzaileetako kutxazain automatikoak
 - g) Alkateak beste ordainbide batzuk baimendu ahal izango ditu.
- 3.- Zor bat kitatzen duenak, ordainketaren frogagiria jasotzeko eskubidea izango du.

12.- artikulua: Banku helbideratzea:

- 1.- Aldez aurretik Udal Administrazioari eskatuko zaio.
- 2.- Aldizka muga eguneratzen eta taldeka jakinarazten diren zergetatik bat, batzuk edo guztiak helbidera daitezke.
- 3.- Ordainagiriak jakinarazpenean edo likidazioan adierazten den egunean zordunduko dira kontuan.
- 4.- Ordainagiriak itzuliz gero, haien zenbatekoa ez bada ordaintzen borondatezko aldian, bilketa exekutiboa hasiko da.
- 5.- Ordainketen helbideratzeak baliozkoak izango dira mugagabe batez. Zergadunek helbideratzeak anulatu edo beste establezimendu batera aldatu ahal izango dituzte edozein unetan, Udal Administrazioari horren berri emanez ezarritako epean.
- 6.- Udalak helbideratzea ezeztatu egin ahal izango du ordainagiriak itzultzen bazaizkio edo helbideratutako kontuan ez badago saldo nahikorik.
- 7.- Udalak, helbideratze eskabideak aurkezteko muga eguna edo helbideratzeek zein egunetik aurrera eragina izango duten zehazten du. Hau da, normalean kaleratzeko dagoen padroian edukiko du helbideratze honek eragina. Sarrera arrunten kasuan, datorren likidazioan.
- 8.- Ezohiko kasuetan, Alkateak helbideratutako ordainagiriak borondatez ordaintzeko aldia luzatu ahalko du.

13.- artikulua: Banku transferentzia:

1.- Ordainketa, banku transferentziaren bidez egiteko, ordainbide hori baimenduta egon beharko da jakinarazpenean.

2.- Jakinarazpenean, kontu zenbakia, zenbatekoa, transferentzia egiteko epea eta kontuan zorduntzerakoan idatzi beharreko oharra agertuko dira.

14.- artikulua: Txekea:

Ordainketa, txeke bidez egiten denean, txekeak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- 1.- Izenduna eta Udalaren aldekua izatea.
- 2.- Entrega eguna baino lehenagoko data edukitzea.
- 3.- Entitateak adostuta egotea.
- 4.- Igorlearen izena edo izen soziala eramatea.
- 5.- Zorraren ordainketa txekea entregatzen den egunean gauzatuko da, eta entrega egunetik izango du eragina.
- 6.- Txekearen zati bat edo zenbateko osoa ezin bada kobratu, premia-menduzko prozedura hasiko da.

GERORAPENA ETA ZATIKAPENA

15.- artikulua: Gerorapena eta Zatikapena:

1.- Alkateak, zerga behartuak hala eskatuta, zorren ordainketa geroratu edo zatikatu ahal izango du zordunaren egoera ekonomiko eta finantzarioak, Udalak zuhurtziarekin aintzat hartuta, ordainketa egitea eragozten badio aldi baterako.

2.- Eskabidearen edukia BLHko Zerga Bilketari buruzko Araudi Orokorrean ezarrita dagoena izango da.

3.- Gerorapena edo zatikapena borondatezko aldian nahiz aldi exekutiboan onartu ahal izango da.

4.- 150,00 eurotik beherako zorrak ezin izango dira geroratu eta ezta zatikatu ere.

5.- Ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko gehienezko epea 20 hilabetekoa izango da.

6.- Ezohiko kasuetan eta xede horretarako emandako ebazpenaren bidez bakarrik onartuko da laugarren puntuan adierazitako zenbatekoa baino txikiagoa den zor bat geroratzea edo zatikatzea, edota bosgarren puntuan adierazitako epea luzatzea.

7.- Ordainketak geroratzeko eta zatikatzeko irizpide orokorrak, borondatezko aldian zein aldi exekutiboan, hauek izango dira:

a.- 800,00 eurotik beherako zorrak:

.- Zatikapena: Ez da egokia.

.- Gerorapena:

150 eta 300 euroren artean.....	1 hilabete
301 eta 500 euroren artean.....	2 hilabete
501 eta 800 euroren artean.....	3 hilabete

8.- Ordainketak geroratu edo zatikatu ahal izateko, nahitaezkoa da eskatzaileak geroratu edo zatikatutako zorren ordainketa helbideratzea.

b.- 800,00 eurotik gorako zorrak:

.- Zatikapena:

800 eta 3.000 euroren artean.....	6 hilabete
3.001 eta 12.000 euroren artean.....	12 hilabete
12.001 eta 24.000 euroren artean.....	16 hilabete
24.001 eurotik aurrera.....	20 hilabete

.- Gerorapena:

800 eta 3.000 euroren artean.....	6 hilabete
3.001 eta 12.000 euroren artean.....	12 hilabete
12.001 eta 24.000 euroren artean.....	16 hilabete
24.001 eurotik aurrera.....	20 hilabete

9.- Zordunak aldi exekutiboan ordaintzeke dituen eta geroratuta edo zatikatuta ez dauden zorren guztizkoa geroratu edo zatikatu beharko da, salbuespenik gabe.

10.- Ezohiko kasuetan edo interes publikoko arrazoiengatik, ezohiko gerorapenak edo zatikapenak onartuko dira.

11.- Oro har, gerorapenentzat ez da bermerik eskatuki zor den guztizko zenbatekoa 6.000,00 eurotik beherakoa denean.

12.- Ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko eskariari uko egiten bazaio, berandutzako interesak likidatuko dira borondatezko aldia amaitzen den unetik ebazpen ukatzailea ematen edo ordainketa gauzatzen den unera arte igarotako denboragatik.

13.- Geroratutako zenbatekoa ez ordaintzeak aldi exekutiboaren hasiera ekarriko du ordaintzeke dagoen guztia kobratzeko.

HUTSEGINAK ETA KREDITU KOBRAEZINAK

16.- artikulua: Hutseginak:

Hutseginak dira kaudimen gabezia frogatuagatik beraien zorrak ordaindu ezin dituzten zerga behartuak.

17.- artikulua: Kreditu kobraezinak:

1.- Zordun nagusia eta haren erantzule solidario zein subsidiario guztiak hutsegintzat aitortzen badira, kreditua kobraezintzat joko da.

2.- Prozedura legearekiko errespetua administrazio eraginkortasunarekin uztartzeko asmoz, kreditu kobraezinen proposamena egin aurretik baldintza batzuk bete beharko dira.

Frogagiriak desberdinak izango dira zorraren zenbatekoaren eta ezaugarrien arabera. Honako kasu hauek bereiz daitezke:

a) 50 € tik beherako espedienteak

1.- Premiamenduzko probidentziaren aurretiko jakinarazpena bidaltzea zordunarekin nolabaiteko lotura duten helbide guztietara, eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

2.- Eraitza negatiboa duten finantza entitateetako funtsak bahitzen saiatzea.

b) 50 € tik 500 € arteko zorren espedienteak

1.- Premiamenduzko probidentziaren aurretiko jakinarazpena bidaltzea zordunarekin nolabaiteko lotura duten helbide guztietara, eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

2.- Eraitza negatiboa duten finantza entitateetako funtsak bahitzen saiatzea.

3.- Eraitza negatiboa duten soldata eta pentsioak bahitzen saiatzea.

©) 500 € eta 3.000 € arteko espedienteak:

- 1.- Premiamenduzko probidentziaren aurretiko jakinarazpena bidaltzea zordunarekin nolabaiteko lotura duten helbide guztietara, eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.
- 2.- Eraitza negatiboa duten finantza entitateetako funtsak bahitzen saiatzea.
- 3.- Eraitza negatiboa duten soldata eta pentsioak bahitzen saiatzea.
- 4.- Jabetza Erregistroan edo beste edozein erregistro publikotan zordunaren izenean inskribatutako ondasunik ez dagoela ziurtatzea.

c) 3.000 € tik gorako zorren espedienteak:

- 1.- Premiamenduzko probidentziaren aurretiko jakinarazpena bidaltzea zordunarekin nolabaiteko lotura duten helbide guztietara, eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.
- 2.- Eraitza negatiboa duten finantza entitateetako funtsak bahitzen saiatzea.
- 3.- Eraitza negatiboa duten soldata eta pentsioak bahitzen saiatzea.
- 4.- Jabetza Erregistroan edo beste edozein erregistro publikotan zordunaren izenean inskribatutako ondasunik ez dagoela ziurtatzea.
- 5.- Zorra urtebetez aldi exekutiboan egon dela eta kobratu ezin izan dela egiaztatzen duen txostena.

PRESKRIPZIOA ETA IRAUNGIPENA

18.- artikulua.- : Printzipio Orokorrak:

- 1.- Udal honen zerga zorra zehazteko duen ahala preskripzio eta iraungipenaren bidez murriztuta geldituko da.
Preskripzioa eta iraungipena aldi berean gertatuko dira; beraz, administrazioak likidazioaren bidez zerga zorra zehazteko duen ahala ezingo da gauzatu horietakoren bat gertatuz gero.

2.- Administrazioak zerga zor likidatuen eta auto likidatuen ordainketa eskatzeko duen ahala preskribitu egingo da, eta baita zerga behartuek zuzenbide publikoko sarrera bakoitzari buruzko arauetatik ondorioztatutako itzulketak, zor ez diren sarreraren itzulketak eta bermeen kostuaren itzulketa eskatzeko eta eskuratzeko duten eskubidea ere.

3.- Preskripzioak eta iraungipenak zerga zorra amaitzen dute eta administrazioaren kabuz aplikatzen dira, zor hori ordaindu izan arren.

19. artikulua.- : Preskripzioa

1.- Aurreko artikuluen 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako administrazioaren ahalak lau urtera preskribituko dute, zerga zorren kasuan. Zuzenbide publikoko beste sarrera batzuen kasuan, dagokion araudia bete beharko da.

2.- Zenbaketa, etenaldi eta preskripzioaren gainerako ondorioen xedeetarako, ZFAOn eta arau hori garatzen duten xedapenetan ezarritakoa beteko da.

20. artikulua.- : Iraungipena

1.- Ordenantza honetako 18. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako administrazioaren ahalak sei urtera preskribituko du.

2.- Zenbaketa, etenaldi eta iraungipenaren gainerako ondorioen xedeetarako, ZFAOn eta arau hori garatzen duten xedapenetan ezarritakoa beteko da.

III.- PREMIAMENDUZKO PROZEDURA

21. artikulua.- : Premiamenduzko prozedura

1.- Zerga zorrak edo zuzenbide publikoko gainerako sarrerak borondatez ordaintzeko epea behin amaituta ez badira zorrak osorik ordaindu, aldi exekutiboa hasiko da ordaintzeke dagoen zatia ordainarazteko.

2.- Aldi exekutiboa hasterakoan %5eko errenergua eta berandutzako interesak ezarriko dira, premiamenduzko probidentzia jakinarazten den egunetik zorra ordaintzeko epearen mugara arteko aldia izan ezik.

3.- Ordaintzeko epea behin amaituta %20ko premiamendu errenergua eskatuko da, borondatezko aldia amaitu zenetik kuotaren gainean sortutako interesez gain. Epe hau hilabetekoa izango da jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

IV.- ADMINISTRAZIO BIDE BERRIKUSPENA

22.- artikulua.- : Birjartze errekurtsua:

1.- Zergen eta zuzenbide publikoko gainerako sarreren aplikazio eta eraginkortasunari buruzko egintzen kontra birjartze errekurtsuak jartzeak ez du aurkatutako egintzaren betearazpena etengo, dagozkion lege ondorioekin, kuota edo eskubide likidatuaren bilketa, interesak, errekaratuak eta zehapenak barne.

Zerga zehapenak ezartzeko egintzak automatikoki etenda geratuko dira errekurtsua jartzen bada.

2.- Hala ere, birjartze errekurtsua epe eta denbora egokian aurkezteak aurkatutako egintzaren betearazpena automatikoki etengo du bermerik aurkeztu beharrik gabe, zerga zorra borondatezko aldia bada edota errekurtsua premiamenduzko probidentziaren aurka jarri bada eta, kasu bietan, borondatezko aldia amaitzen den unean zor den zenbatekoa 6.000,00 euro edo gutxiagokoa bada.

3.- Aurreko puntuan adierazitakoak baino zenbateko handiagoen kasuan, interesdunak, errekurtsua jartzeko epearen barruan, aurkatutako egintza etetea eskatu ahal izango du.

Horretarako, ezinbestekoa izango da bermea jartzea, errekurtsogileak honako hauen artean aukeratu beharko duelarik:

- Eskudirua edo herri baloreak gordailutzea.
- Kreditu entitate edo elkarren bermerako sozietate batek emandako abal edo fidantza solidarioa, edota kausio aseguruaren ziurtagiria.

4.- Errekurtsua ebazteko eskumena duen organoak bermerik gabeko prozedura etetea erabaki ahalko du, bermea derrigorrezkoa denean Ordenantza honetan etenaldi automatikorako ezarritako muga gainditu delako, honako kasu hauetan:

.- Oker aritmetikoa, materiala edo egitez sortutakoa egon daitekeela ikusten bada.

.- Errekurtsogileak, bermea aurkeztu ezina alegatu eta justifikatzen badu, ebazteko eskumena duen organoaren irizpidearen arabera.

5.- Etetea ematearen ondorioz, haren denbora guztiarengatik berandutzako interesak ordaindu beharko dira beti, eta birjartze errekurtsuan bakarrik izango ditu ondorioak.

6.- Birjartze errekurtsua hilabeteko epean jarri behar da, berraztertze eskatzen den egintzaren berariazko jakinarazpena egiten den egunaren edo zergadunen edo ordaintzera behartuta daudenen errolda edo matrikulak jendaurrean egoteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Aldian aldiko mugaeguna duten eta taldeka jakinarazi behar diren zorrak direnean, errekurtsua ordainketa egiteko borondatezko aldian jarri ahal izango da, edo hilabeteko epean, aipatutako aldia amaitu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

V.- IKUSKARITZA PROZEDURA

23.- artikulua.- : Zerga Ikuskaritza

Zerga ikuskaritza BLH ko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorrean, BLHko Zerga Ikuskaritzaren Araudia onesten duen 99/2005 Foru Dekretuan eta gainerako xedapen osagarrietan ezarritakoaren arabera egingo da.

VI.- ZEHATZEKO ARAUBIDEA

24.- artikulua.- : Zehatzeko Ahala

Zehatzeko prozedura BLH ko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorrean, BLH ko Zerga Zehapenaren Araudia onesten duen 100/2005 Foru Dekretuan eta gainerako xedapen osagarrietan ezarritakoaren arabera egingo da.

25. artikulua- Zergadunen fitxategia

1. Tributuen eraginetarako zergaduna ezinbesteko datu honeekaz identifikatuta dago:

-Izena: hizki guztiekaz laburdura barik, izen konposatuak diranean bigaz nahiko izango da.

-Abizenak: hizki guztiekaz laburdura barik, lehenengoa eta bigarrena behar dan legez bereiztuta.

- N.A.N./IKF: zenbakiak eta hizkia

- Helbide fiskala

2. Identifikatutako zergadun guztiek Zergadunen fitxategia osatzen dabe eta banakako zergadunari fitxategian erregistro bakarra jagoko.

3. Erregistro bakarra lortzeko behar diran erregistro garbiketak egingo dira. Garbiketarako baliabideak honako honek izango dira:

- Zergadunen fitxategian zergadun batek erregistro bat baino gehiago daukala antzeman ezkeru, euretariko fidagarriena aukeratuta.

- Berh@z bulegoan zergaduna tributuei buruzko edozein tramite egitera doanean edo Diru-bilketara ordaintzen doanean, zuzenean, baloizko datuak emotera behartuta.

- Datuak gaurkotzeko kanpainak eginda.
- Ofizioz bestelako errolda, erregistro eta instituzinoen fitxategi trukaketatik eskuratutako datu zuzenak.

26. artikulua: Helbide fiskala

1. Helbide fiskala zergaduna zerga Administrazioagazko harremanetarako dagoan lekua da eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru-Arauan, bereziki 47., 107., 108., 109. eta 110. artikuluetan, xedatuta dago.
2. Pertsona fisikoen helbide fiskala ohiko egoitza da, hau da, Biztanleen erroldan jasota dagoana.
3. Zergadunek euren egoitza non dagoen adierazo behar deustoe Zerga Administrazioari. Beraz, bizileku aldaketaren ondorioz Biztanleen erroldan aldaketa eskatzeak/egiteak ez dakar berez helbide fiskalaren aldaketa.
4. Aurreko ataletan xedatutakoaren kalte barik, zergadunak adierazo daike ohiko bere bizilekua ez dan beste leku bat. Adierazpen hori espresuki egin beharko dau zerga Administrazioagazko harremanetarako dagoan lekutzat onartzeko eta erregistratzeko.
5. Edozein kasutan eta zergaduna dan tributu guztietarako helbide bakarra eukiko dau eta hori da Zergadunen fitxategian jasota egongo dana.
6. Helbide fiskalaren aldaketa eskariak eskari dataren osteko kitapenetan eukiko dau eragina. Aldizkako kitapenen kasuan, eratu barik dagoan hurrengo erroldan.

27. artikulua: Katastroko zenbaki finkoa adierazteko behe beharra

Udal tributuen kudeaketa eraginkorra izan daiten ezinbestekoa da udal tributu guztietarako higiezinaren kokapen identifikazio bakarra eukitzea. Horrez ganera, higiezin bateri lotutako lizentzien xedea gauzatzeak euki daiken eragina adibidez higiezinaren katastro balioan kontutan izanda, higiezin bateri lotutako zerbitzuei buruzko eta lizentzia eskarietan derrigorrezkoa da katastroko zenbaki finkoa jartea inprimakian edo eskari-idazkian.

Inprimakian edo eskari-idazkian katastroko zenbaki finkoa ez jartea eskaria ez tramitatzea ekarriko dau.

VII.- AZKEN XEDAPENA

Lehenengoa.- : Baliokidetasunak organoaren artean:

Ordenantza honetako gaiei buruzko eskumenak dituzten organoak zehazteko, honako baliokidetasunak kontuan hartuko dira:

Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean azaltzen diren organoak	Bermeoko Udaleko baliokideak
Foru Ogasuna	Ogasun Batzordea

Ogasun eta Finantza Saila eta Ogasun eta Finantza Saileko Foru Diputatua	Alkatea
Diruzaina	Diruzaina
Foru Erakunde Autonomoak	Udal Erakunde Autonomoak
Foru Aldundia	Udala

Bigarrena.- : Indarrean sartzea:

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta ez du atzerako eraginik izango. Dena den, zerga urraketen eta zigorren araudiak eta errekarquei dagokienak atzerako eragina izango dute irmoak ez diren agintzetan, haien aplikazioa interesatuari onuragarriago gertatzen zaionean.